

BERMEO / Bideotekaren erabilera atzeratu egin dute

Armairuekin arazo batzuk konpondu behar dituzte hiru pantaila behar bezala ipintzeko

Joxe Miel Barandiaran Udal liburutegian hobekuntza lanetan aritu dira udan (hiru aste egon da zarratuta), eta berriz irekitzerakoan zerbitzu berri bat martxan edukitzeko asmoa zuten: bideoteka. Hala ere, arazo batzurengatik, datorren astera arte atzeratu behar izan dute bideotekaren estreinaldia. Lehenengo solairuko eskumako aldean kokatu gura dute bideoteka zerbitzua, baina, horretarako, armairuetako apalategietan arazo bat konpondu behar dute. Hain zuzen, bertan ipiniko dituzte hiru plasma pantaila.

Monitore horiek VHS formatuko bideoak eta DVDak ikusteko balioko dute. Erabiltzaileek belarritakoekin entzungo dute soinua, liburutegian dauden gainontzeko irakurleak ez molestatzeko. Pantaila bakoitzeko bi belarritako pare ipiniko dituzte, bi pertsonak aldi berean irudi berak ikusi eta entzun ahal izateko.

Bideoteka ipini behar izateak liburutegian kokapen aldaketa gehiago eragin ditu. Bideotekaren lekuan literatura liburuak zeuden, eta orain, liburu horiek lehen solairuko ezkerrean ipiniko dituzte, hemerotekagaz eta fonotekagaz batera.

Bigarren solairuan ikasleentzako mahai gehiago ipini dituzte, eta hirugarren solairuan, lehen Kultura sailekoek bulegoa zuten tokian, beste zerbitzu bat eskainiko dute: mikrofitxategia.

Bertan, argitalpen bereziak kontsultatzeko eta ikerketa arloan ibiltzen direnentzako leku bat ipini gura izan dute liburutegiko arduradunek.

Ordutegi aldaketa

Bestalde, liburutegiak, oporren eta jaien ostean, ohiko martxa hartu eta ordutegia aldatu du. Aste honetatik aurrera, 09:30ean irekiko dute liburutegia 14:00ak arte, eta 15:30ean osterara ere 20:00ak arte. Ordutegi hori astelehenetik barikura edukiko du. Asteburuetan, zapatu goizetan baino ez dute irekiko liburutegia.